

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA



ETXETIK PLAZARA

INDARRA EZ DA ARRA



SARIA:
Lesakako
BEKO mintegian
60 €ko
erosketa

2018ko APIRILA

157. ALEA

EUSKAL EMAKUMEAK GOGOAN

Historian eragina izan duten pertsonengan pentsatzen hasiz gero, segur aski, zerrenda luze samarra osatuko genuke: politikari, zientzialari, iraultzaile, idazle edota bertzelako pertsonaiak etorriko zaizkigu gogora. Baina, zerrenda horretako zenbat dira emakumeak? Zoritxarrez, guti, sobera guti. Emakume garrantzitsurik burura ez etortzeak, ez du erran nahi egon ez direnik. Aitzitik, noski egon direla, eta badaudela; baina, gehienetan, ez zaie gizonei adinako garrantzirik ematen. Hala, emakumeari eskaini nahi diogu ale hau; haren balioa nabarmenduz eta gizartean betetzen duen paper inportantea goraiatuz.

Aipatutakoa ardatz, Lola Valverde historiagileak ikerketa sakonak egin izan ditu gaiaren inguruan. Horren adierazgarri tiki bat bertzerik ez da 2011n, Valverdek eta Eusko Ikaskuntza erakundeak Kukuxumuxurekin batera kaleratu zuten elastikoa. Bertan, Euskal Herriko historiako 44 emakume agertzen dira; garai eta klase sozial ezberdinetakoak. Aunitz dira, baina horien artean honako hauek aurki daitezke: Matilde Uitzu, Marie Coulon, Maria de Maeztu, Dolores Ibarruri, Kattalin Agirre, Juana III Labrit, Maialen Lujanbio, Inesa Gaxen..

Den-denak aipatu ezin ditugunez, zerrenda luze horretako hiru emakume aukeratu ditugu laburki azaltzeko:



KASILDA HERNAEZ

1914an sortu zen, Zizurkilen. Garaiko anarkista eta feminista ezaguna dugu Kasilda, bizi guzia eman baitzuen iraultzaren alde borrokan. Hala, 1931n, CNT eta Gazte Libertarioak erakundetako kide izan zen. Gerra Zibilaren hasieran, fronteko lerroan jo ta su borrokatu zen Aiako Harriaren eta San Martzial mendiaren defentsan. Geroago, Katalunia, Madril eta Aragoiko fronteetan aritu zen, eta, azkenik, Biarritzen bere bikote Likinianorekin batera erbesteraturik, 1992an zendu zen.



ELVIRA ZIPITRIA

1906an, Zumaian sortu zen Elvira. Magisteritzako ikasketak bukatu ondotik, Errepublika garaian, lehenbiziko ikastola sortu zuen Donostian. Francoren etorrerarekin batera urte batzuez alde egin behar izan zuen arren, herrira bueltatu zelarik, utzitako bideari ekin, eta bigarren ikastola bat abiarazi zuen. Horrela, poliki-poliki, ondoren etorriko ziren ikastolei bidea ireki zien andereñoen andereñoak.



EULALIA ABAITUA

Argazkilari hau 1853an sortu zen Bilbon. Euskal Herriko lehenbiziko emakume argazkilaria izan zela erraten da. Familia aberats batetik heldu zen arren, pertsona xumeen argazkiak egin zituen batez ere. Gisa hartan, balio handiko argazki historikoak egin zituen: garaiko ohiturez, jaez eta tradizioez jantzitako erretratuak, baserrikoak zein hirikoak.

Hika edota hitanoa lagunartean erabiltzen den erregistroa da: bigarren pertsonaren singularrean, "zu" erabili beharrean, "hi" izenordaina erabiltzen da. Mezuaren hartzailea nor den, aditzak forma ezberdina hartzen du; hau da, hartzailea neska bada, aditza modu batekoa izanen da, eta mutila bada, bertze modu batekoa. Hikari dagokionez, mutilentzat erabiltzen denari toka erraten zaio, eta neskentzat noka. Halere, ez da arraroa neskei tokaz mintzatzea, nahiz eta zuzena ez izan. Beraz, gaurko lanketan akats hori zuzentzen saiatuko gara. Horretarako, mutilei zuzenduak dauden ondorengo esaldi hauek, noka eman beharko dituzu:

ERNE, SARIRAKO!

1) Gaur goizean, hire zakurra ikusi diat mendian eta ardiei saingaka ari zuan.

.....

2) Hagitz dotore joan hintzen anaiaren urtebetetze bestara.

.....

3) Ixabelen lehengusuak loreak erosi ditik, eta, hemendik pasatu delarik, arrosa bat eman zidak.

.....

4) Gaur ez nagok umoreko, hobe duk nigandik urruntzea.

.....

5) Atzo Aritz medikuarenera joan zuan, eta hark azukrerik ez hartzeko erran zioan.

.....

6) Zineman ez diagu krispetarik erosiko, horrela ez gaituk egarri aterako.

.....

7) Tailerrera noak, atzo autoa han utzi nian eta.

.....

8) Ibardinera joaten bahaiz, eros iezadak Ricard botila bat.

.....



IZENAK IZAN

ESKUALDEKO EMAKUMEAK

Etxetik Plazara aldizkariaren aleak errepasatuz gero, ohartuko gara emakumeek toki garrantzitsua izan dutela –txikiagoa, beharbada, gizasemeek izan dutenarekin alderatuz gero–. Elkarrizketak zein emakumeek egindako bertsoak landu izan ditugu, baita sorginak eta haien ondorio historikoak ere.

Ariketa honetan, bada, ildo beretik segituz, gure eskualdean une honetan hainbat lanetan ari diren emakume-sorta baten informazioa bildu dugu. Sorta txiki honekin garbi utzi nahi dugu emakumeok gizarte osoko arlo guztietan gaudela, anitzetan, ikusezin garen arren. Protagonistaren ezaugarriak nahasita daude, ea txukun parekatzen dituzun.



- 1.- **ESTITXU PINATXO.** Beratar honek txikitatik abesten eta eskusoinua jotzen du.
- 2.- **ANE BERGARA.** Beratarrek Gure Txokoan hasi zuen kirol ibilbidea. Espanyol, Erreal eta Euskal Herriko Selekzioan ere ibilitakoa da.
- 3.- **ANA MARIA URMENETA.** Baztango margolari honek ikasketak Bordele eta Madrilén burutu zituen.
- 4.- **AMETS INDA.** 35 urte ditu, Sunbillako alkatea da eta...
- 5.- **NAROA ELIZALDE.** 21 urteko zubietar gazte honek irakasle-eskolako ikasketak eta...
- 6.- **ESTITXU AROZENA.** Lesakar hau Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapelduna izan zen 1995 eta 1998an.
- 7.- **KISTIÑE B. LERTXUNDI.** Aspalditik Lesakan bizi den emakume hau ogibide anitz izandakoa da: argazkigintza, kazetaritza, irakaskuntza...

- a) bigarren legealdia betetzen ari da.
- b) Haren lana Bidasoako eskolan sailkatua dago. Nagusiki akuarelak eta paisaiak margotzen ditu.
- c) Orain, aldiz, nekazaritza ekologikoan eta sendagile lanetan dihardu.
- d) 15 urterekin hainbat talderekin abeslari aritu zen; baita telebistako saio famatuetan parte hartu ere.
- e) Ondoren, Bartzelonan eta, gaur egun, Athleticean ari da
- f) Gaur egun, bertso-eskoletan buru-belarri aritzen da lanean.
- g) pilota ederki uztartzen ditu.

EUSKAL MATRIARKATUA

Atal honetara, 80ko hamarkadan zeresan handia izan zuen afera ekarri nahi izan dugu; euskal matriarkatuaren teoria, alegia. Interesgarria deritzogu teoria horri, egungo gizartea kezkatzen duen gaia jorratzen baitu: gizartearen antolaketa generoaren ikuspegitik. Testuan aurkituko dituzun hutsuneei solas egokia eman beharko diezu lehendabizi. Animo!

- | | | | |
|--|---|---|-----------------------------------|
| 1) a. zen
b. zenaren
c. zeneko | 2) a. batzuek
b. batzu
c. batzuk | 3) a. aldiz
b. beraz
c. hortaz | 4) a. den
b. duen
c. dituen |
| 5) a. Batez ere
b. Are gehiago
c. Horregatik | 6) a. dagozkionez
b. dagozkio
c. dagokionez | 7) a. genituzke
b. genituen
c. genuke | 8) a. ote
b. omen
c. ohi |

Hiztegia matriarkatu hitzaren definizioa begiratzen badugu, honako hau harrapatuko dugu: agintea emakumeen esku dagoen gizarte sistema. Bada, horixe bera da hainbat ikertzailek euskaldunon antzinako gizarteari egokitzen zioten antolaketa-modua. Halere, teoria soiltzat hartzen da Euskal Herriko matriarkatua existitu(1)..... ideia, eta, hala, sinesgarritasunaren bi aldeetan kokatzen diren autoreak aurkitzen ahal ditugu: aldekoak zein kontrakoak. Horietariko(2)..... aipatzekotan, Barandiaran eta Caro Baroja izanen genituzke matriarkatuaren ideia defenutzaileren artean. Del Valle eta Aranzadi,(3)....., balantzaren bertze aldean, hagitzez kritikoago agertu izan dira.

Berriki, euskal matriarkatuaren kontzeptua berrikusi du Mari Carmen Basterretxea antropologoak, 20 urtetako ikerketa biltzen(4)..... Euskal Herria, kultura matrilineala liburuan. Haren hitzetan, gure kultura matriarkala baino gehiago, matrilineala izan omen zen. Horrekin erran nahi izan du egitekoak, ardurak eta erabakiak partekatuak izan zirela, bai gizonen, bai emakumeen artean, bata bertzearen gainetik gailendu gabe.

.....(5)....., antolaketa-modu hori ez omen zen Euskal Herrian bakarrik eman, Europa osoan baizik. Baina eliza katolikoaren sarrerarekin batera, kultura matrilineala alde batera utzi zen.

Teoriak teoria, autore gehienak ados daude ideia nagusi batekin: emakumeak pisu eta eragin handia izan du euskal gizartean. Ideia hori bi alor ezberdinetan ikusten ahal da: alde batetik, mitologian; eta, bertzetik, baserriko emakumeengan.

Mitologiari(6)....., gurea nagusiki femeninoa dela azpimarratzen du Xamar euskal kulturaren adituak. Horren adierazle dugu Mari pertsonaiaren berebiziko garrantzia. Ezin ahantzi ideia horrekin lotura zuzena duen seroraren figura. Gaur egungo ikuspuntutik, serora elizako lanetan laguntzen zuen emakumea izan arren, lehen paper hagitzez inportanteagoa aitortzen zitzaion, apaizenen parekoa. Baserriko emakumeari dagokionez, berriz, hura administratzeko eta antolatzeko ardurak nabarmendu beharko(7)..... bertze batzuen artean.

Argi dagoena, zera da: bizitzako esparru guzietan, noizbehinka gibelerara begiratu beharra da bide zuzena segitzen ari(8)..... garen jakiteko.



BOTA BERTSOA!!

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko lorpenak martxoaren 8az haratago joan behar du. Hezkuntza, administrazioa, kirolak, artea... gizartearen esparru guzietan, egunez egun, hilabetez hilabete, berdintasunaren bidea jorratu behar da: manifestuak, berdintasun-politika eraginkorrak, kantuak, hezkuntza-politikak... Denak balio du gizartea berdintasunean eraikitzeko. Estitxu Arozena bertsolariak egindako bertso pare honek ere arreta gureganatzeko balio duelakoan aurkeztu nahi dizuegu. Gozatu, eta kendutako oinak behean daudenekin parekatu.

1 Itxura denez hemen izan zen
kultura -----1-----
ardurak eta erabakiak
partekatzea -----2-----
matriarkatua bazen edo ez
eztabaida -----3-----
ba nik baitza defendatu nahi
nuke nola edo -----4-----
eztabaidatze hutsa hartzen dut
lehenengo froga -----5-----

2 Gure ilargi zikliko eta
amalur eta -----6-----
zeinen eskutan zen baserria
zeinen esku -----7-----
bertzela nola azaltzen da ba
sorginaren -----8-----
nahiz eta aurreak erakusten dun
nola dantzatu -----9-----
interesgarri da gehienetan
atzera -----10-----

Doinua: Itsasoari begira

- 1) a.- hala b.- bezala c.- matrilineala d.- partziala e.- normala
2) f.- oinazea g.- begiratzea h.- haizea i.- baratzea h.- atzea

ERANTZUNAK



IZENAK IZAN (4. or.):

1- d; 2- e; 3- b; 4- a; 5- g; 6- f; 7- c

BITXILOREAK (5. or.):

1- a; 2- c; 3- a; 4- b; 5- b; 6- c; 7- a; 8- a

BOTA BERTSOA! (6. or.):

a- 4; b- 5; c- 1; d- 3; e- 2; f- 8; g- 10; h- 6; j- 7; j- 9

156. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK 2 Erleen emaria (6. or.):

1- d; 2- c; 3- f; 4- g; 5- b; 6- h; 7- e; 8- a

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **3. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: Lesakako
BEKO mintegian
60€ko erosketa

156. aleko irabazlea:
Jose Angel
Elizalde Etxeberria
Elizondokoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzin; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak maiatzaren 4a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

LAN eta LAN (NOKA) (3. or.):

1 - _____

5 - _____

2 - _____

6 - _____

3 - _____


7 - _____

4 - _____

8 - _____



JOLAS NAHAS



Ezkerretik eskuinerat

4. Zerbaiten eskakizun edo defentsaren alde egin.
5. Aro jakin batean komunitate batek oinarritzat hartzen dituen eta guztien ongizatea lortzeko aplikatzen diren printzipioen multzoa.
6. Maila berekoak, parekoak, antzekoak edo elkarrekin pareka daitezkeenez erraten da.
7. Nor bere buruaren jabe izatea.
8. Zerbaitek bere era edo forma aldatu.

Goitik beheiti

1. Norbaitek zerbaitetarako boterea, ahalmena lortzen duenean.
2. Genero, arraza zein klaseari erreparatu gabe, guztiok aukera eta eskubide berdinak izatea.
3. Anitz izatearen nolakotasuna.

Erantzunak:
1- Ahalduntzea; 2- Berdintasuna; 3- Antzitasuna;
4- Aldarrikatu; 5- Justizia; 6- Parekidea;
7- Burujabetza; 8- Eraldatu.

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOKKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....
Helbidea:..... Herria:.....
Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

